




GARA

Ramon Glez. Arrieta • BETERANOENA •

«Gaur egun ez dago 'gruppetto'rik»

HAMAIKAGARREN denboraldia oso lasai hasi du, Mallorcan, Ramon Gonzalez Arrieta, euskal txirrindularirik beteranoenak, eta «urtea luzea da», dio azken etapa amaitu eta gutxira. Zahartzarora ailegatzen diren guztiak bezalaxe, aurrera baino gehiago atzera begiratzten du Galdakaoko ziklistak, eta hobia iruditzen zaio, ohi denez. «Ziklismoa asko aldatu da 1994. urteaz geroztik, eta ez dakit hobera egin duen. Egun ez dago gruppettorik ere. Urtetik urtera azkarrago gabiltza, planifikazioa gero eta perfektuagoa da, eta inoiz ez da bakterik izaten. Ni hasi nintzenean bi mila kilometroekin hasten ginen denok, ez zen presarik izaten, ez baitzen ziklista orain adina estutzen».

Profesionaletan egin dituen urte guztietatik ditu oroitzapen onak, arazo handirik gabe egin baititu orain arteko hamar urteak, eta izar handia izatera ailegatu ez bada ere, ziklismoaren loria ezagutzeko proportzioa izan zuen, besteak beste, Alpeetako klasikoa irabazi zuenean. «Oso gustura nago egin dudanarekin. Hamai-kagarren urtea dut eta ez da

erraza hainbeste urte profesionaletan egitea, hemengo legea latza baita, inork ez du ezer oparitzen». Unerik onenak, bere garaipen bakarrak gain, Miguel Indurainen aldamenean bizi izan zituen. «Miguelen aldamean izatea handia izan zen niretzat. Hark irabazi zituen azken bi Tourretan, hari laguntzen izan nintzen bertan. Bestalde, ez dut inorekin kexurik. Talde guztietan ondo kobratu dut, arazorik gabe, eta Miguel Morenori ere asko dut eskertzeko».

Joan zen neguan Joane Somarribarekin (Giroko garailea) ezkondu zen, eta etorkizunean hari lagunduko diola aurreikusten badu ere, ez du ziklismoan oraindik azken hitza esan. «Nire ilusio handienetako bat da taldea Tourrean ikustea, baina badakit oso dela zaila. Iaz ibili ginen bezala ibilita, ez gintuzten gonbidatu eta aurten ez da errazagoa izango, Frantzia talde berriak sortu baitira. Beste ilusioak, Euskal Bizikletan edo Vuel-tan etaparen bat irabaztea da, baina, hori ametsa da. Aurten ondo ibilita, beste urtebete ere gustura segiko nuke, baina duintasunez amaitu nahi dut karrera».

hitz bitan

UCIn onenak: UCIn puntuak herrialdeetako biztanleekiko proportzioan zenbatuta, Euskal Herria da aurrena munduan. Izan ere, egun, Olanoz gain, puntakoak dira Igor Galdeano —iaz bigarren Vueltan—, David Etxebarria —iaz bi etapa Tourrean—, Unai Osa bera —Etorkizuneko Itzuliaren irabazle iaz—...

Euskal ziklista guztiak

Ziklista	Taldea	Adina	UCI
R. Laiseka	Euskaltel	30	83.
A. Martinez	Euskaltel	24	104.
T. Del Olmo	Euskaltel	26	156.
I. Chaurreau	Euskaltel	26	216.
H. Zubeldia	Euskaltel	22	233.
R.G. Arrieta	Euskaltel	32	361.
U. Etxebarria	Euskaltel	27	386.
M. Pradera	Euskaltel	24	433.
B. Fernandez	Euskaltel	27	451.
Igor Flores	Euskaltel	26	530.
A. L. Munain	Euskaltel	27	577.
J. Silloniz	Euskaltel	21	1.177.
R.D. de Cerio	Euskaltel	23	1.177.
P.Arreitunandia	Euskaltel	25	1.164.
G.Gerrikagoitia	Euskaltel	26	1.470.
Iker Flores	Euskaltel	23	-
I. Mayo	Euskaltel	22	-
G. Arrizabalaga	Euskaltel	22	-
A. Quintana	Euskaltel	24	-
M. Artetxe	Euskaltel	23	-
A. Silloniz	Euskaltel	22	-
U. Osa	Banesto	24	82.
A. Osa	Banesto	26	152.
J. Odriozola	Banesto	29	201.
J.V. Garcia	Banesto	27	321.
C. Solaun	Banesto	29	354.
J.L. Arrieta	Banesto	28	463.
D. Latasa	Banesto	25	630.
A. Garmendia	Banesto	31	898.
A. Olano	ONCE	30	18.
D. Etxebarria	ONCE	26	43.
M. Zarrabeitia	ONCE	29	79.
G. Lejarreta	ONCE	21	-
I. Galdeano	Vitalicio	26	23.
A. Galdeano	Vitalicio	30	155.
P. Horrillo	Vitalicio	25	441.
J. Otxoa	Kelme	25	898.
R. Otxoa	Kelme	25	978.
J. Beloki	Festina	26	111.
I. Sastre	Festina	22	926.
O.L. Uriarte	Benfica	29	789.
J.A. Garrido	Benfica	24	996.
G. Santisteban	Mobel	25	-
J. Sedano	Mobel	26	-
J.M. Garate	Lampre	23	-
I. Astarloa	Mercatone	23	-
R. Mateos	Polti	23	-
I. Aiestaran	Fuenlabrada	26	-
R. Oarbeaskoa	L.A. Peco	24	-
U. Yus	Matesica	26	-
D. Garcia	Costa Al.	29	547.



MONDELO / EFE

David Etxebarria • PUNTAKO ZIKLISTA •

«Aukeran, Jokoak irabaziko nituzke»

DUDARIK GABE, etorkizunik bikainenetakoa duen euskal ziklista da David Etxebarria abadiñoarra. Seigarren urtea hasi berria du, eta lehiatu dituen egun apurretan aldaketarik nabaritu zaio, sasoi betean izan gabe ere, aurrean ibili baita, erasoka. Konfiantza, segurtasuna eta maila handia somatzen zaio, aparta izateko bidean baitoa. «Ez dakit gehiegi ez ote nabilen», zioen atzo. «Ikaratuta nago, ez bainuen hain ondo hastetik espero, eta ikusiko dugu gero ondo ibili behar dudanean nola ibiltzen naizen».

Aurrean ibiltze hori baina, ez da patuak berekasa ekarritako zerbait, arrazoiak zein diren badaki Etxebarriak. «Batetik, iaz garai honetan bertan baino hiru kilo gutxiago pisatzen dut, eta hori atzeman egiten da. Baina, bestalde, ez naiz asko entrenatu, denboraldia lasai hasi nahi bainuen. Serierik ez dut egin, iraupeneko lana bakarrik landu dut, baina alderik handiena buruan nabaritu dut. Iaz Tourrean lortutako bi etapec konfiantza handia eman didate».

Garaipen haiek biek eta azken sailkapeneko 12. postuak, itxaropen ikaragarria

piztu du zaleengan, eta pentsa ahala garaipen eskuratu ditzakela dio jendeak. Hizketatik ekintzara, ordea, pedalkada ugari dago eta tartean aukariak galanki. Hori badaki bizkaitar txikiak. «Ez da erraza izango, ez, iazkoa berdintzea, batez ere Tourreko bi etapak. Tourrean lehen hamarretan sartzea nahi nuke, baina zortzigarren bezalaxe sailkatu zintezke 20., berdin-berdin ibilita. Horretaz gain, etapa bat ere eskuratu nahi dut, eta bietatik azken helburu hau lortzea nahiago dut».

Manolo Saiz, bere zuzendariak, nahikoa gogor hartu du aurten Etxebarria, hark baitio iazko jarrerarekin epe laburrean profesional ona dela, baina txarra epe luzerako, ez baitu erregularitasunik, kontzentrazioa galtzen ei duelako. Iazko hutsegitetatik ikasi nahi du txirrindulariak. «Joan den urtean akats batzuk egin nituen Tourra eta gero, baina aurten denboraldi amaiera itxuraz prestatu nahi dut, lehenik Vuelta, gero Joko Olinpikoak eta azkenik Munduko Txapelketa. Eta aukeran Jokoak irabaziko nituzke». Lehiakortasunik behintzat ez zaio faltako.